

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUIAKO UDALA

Eraikinen ikuskapen teknikoa (EIT) egiteko diru-laguntzak deitzen dituen Zuiako Udalaren Osoko Bilkuraren 2020ko maiatzaren 14ko erabakiaren laburpena

BDNS (Identif.): 510723

Diru-laguntzak emateko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3 eta 20.8 artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitara ematen da, eta horren testu osoa Espainiako Diru-laguntzen Datu-basean kontsulta daiteke, <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>.

Lehenengoa. Onuradunak

Oinarri hauetan jasotako dirulaguntzaren onuradunak honakoak izango dira: pertsona fisikoak edo erkidegoak, bizitegitarako erabilera duten eraikinen jabeak edo gozamedunak, eraikinek berrogeita hamar urtetik gora badituzte edo katalogazio edo babes motaren bat badute, eta eraikinen ikuskapen teknikoa egin ostean, dirulaguntzen eskaera egiten dutenak.

Dirulaguntza emateko eskatzailea Zuiako udalerrian erroldatuta egon behar da, deialdiaren urteko urtarrilaren 1ean.

Bigarrena. Xedea

Oinarri hauen xedea da Zuiako udalerriko eraikinen ikuskapen teknikoari buruzko txostenaren kostua zati batean ordaintzeko Zuiako Udalak ematen dituen dirulaguntzen prozedura arautzea eta sustatzea.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Udalaren Osoko Bilkurak 2020ko maiatzaren 14an onartu zituen diru-laguntzak eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Dirulaguntza egindako jardueraren aurrekontuaren ehuneko 50era artekoa izango da; familia bakarreko etheen kasuan, gehienez ere 200 eurokoa, eta jabe erkidegoen kasuan, gehienez ere, 500 eurokoa.

Genero indarkeriaren biktima izatea egiaztatzen duten pertsonentzat ehuneko 60ra artekoa izango da diru-laguntza, eta gehienez ere 220 eurokoa.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Dirulaguntzen aurrekontu aurreikuspena 2020ko ekitaldirako 6.000 eurokoa izango da, 2020ko abenduaren 30erako, eta ez da luzatzeko aukerarik egongo.

Dokumentazioa udalaren erregistro orokorrean aurkeztuko da.

Seigarrena. Beste datu batzuk

Eskabidea zein deialdiaren oinarriak www.zuia.eus orrian (Izapideak/Diru-laguntzak) edo Oinarrietan azaltzen dira.

Murgian, 2020ko maiatzaren 14an

Alkate-udalburua
UNAI GUTIERREZ URKIZA